

Amets Elozegi Martin

E Maila | Prosa | 3. saria

Kaixo, ni Amets Elozegi beasaindarra naiz. 10 urte ditut eta Andramendi ikastolara joaten naiz. Nire zaletasunak hauek dira: Jolastea, musika entzutea, musika jotzea eta kirola egitea. Handitan bideo jolasak egiten dituen, monster truck-ak diseinatzen dituen, kirolaria eta pailazoa izan nahi dut.



Zezen artean

Udako egun eguzkitsu batean, uztailak 7an, Iruñan San Ferminak ospatzen ari dira. Jendez gainezka daude Santo Domingo kalea eta inguruak. Ia denak praka eta alkandora txuriz, zapi eta gerriko gorritz jantzita eta eskuetan egunkaria bilduta dutela.

Maikerek 30 urte ditu, amerikarra da eta jai hauek ikaragarri gustatzen zaizkio. Altua eta indartsua da. Ilea belearen lumak baino ilunagoa du, soinean San Ferminetako arropa du jantzita. Azkeneko 5 urtetan entzierroan korrika egin du, baina aurrean jaiez beste era batera gozatzea pentsatu du. Horretarako freestyleko motorra ekarri du.

Zezenak eta joaldunak Santo Domingoko eskortan daude bart gauean, harresietan kokaturiko antzinako baluarte batean. Goizeko zortziak hamar gutxi dira, Maikel harresira igota dago, zezenak noiz aterako zain. Bat-batean korrikalariak hormako zulo batean dagoen San Fermini abesten hasi dira babesa eskatzeko. Segituan zezenak aterako dira!

Maikel harresitik behera dator motor gainean, segituan entzierroari hasiera emango dion txupinazoa botako baitute. Baranda gainetik salto egin du eta elkarren ondoan dauden korrikalarien atzean jarriz, polizia-lerroa gainditzea lortu du. Pummm!!! Txupinazoa bota

dute. Zezenek Santo Domingoko aldapan gora abiadura handia hartu dute, ibilbidearen hasiera baita. Tarte arriskutsu honetan korrikalariak ez dute babeslekurik eta ahal duten azkarren doaz zezenek harrapatu ez ditzaten, Maikel euren tartean dutelarik. Udaletxeko plazara iritsi dira eta zezen beltzek joaldunak aurreratu dituzte. Mercaderes kalean barna Maikel bere motorrarkin korrikalarien buru jarri da. Ustekabean, Mercaderes eta Txapitela kaleko bihurgunean, ibilbidea zehazten duen pinu-zurezko oholen zati bat askatuta ikusi du. Zezenek tarte hori ihes egiteko baliatu dute. Jendartean izua eta beldurra nagusitu dira, aiton-amonak sustoarekin geldi-geldirik daude, gertatzen ari dena ezin sinisturik. Umeei garrasika laguntza eskatu dute, korrika doaz alde batetik bestera zalaparta batean. Maikelek oihuak entzun dituenean, atzera begiratu du eta motorraren norabidea aldatu ondoren, builaka esan du:

- Lasai, zezenak bideratuko ditut!

Orduan, Maikel zezenen atzetik joan da abiadura bizian, jendeari ohartarazten:

- Kontuz, zezenak barandatik kanpora atera dira!!!

Balkoietan daudenak sokak botatzen ari dira ahal duenak sokara heldu eta goruntz eskalatzen igo daitezten.

Zezenak Gaztelu Plazan daude, erdi erdian dagoen kioskoarren eskuinetik hiru zezen joan dira eta beste hirurak ezkerretik. Maikelek motorrarekin salto akrobatiko bat egin du kioskoaren gainetik beste aldera pasatuz eta zezenen aurrean kokatuz. Joaldunen lana eginez, zezenak, bidean desbideratu gabe, Iruñeko koliseorik ezaguneraino, Gaiarre antzokiraino, eramatea lortu du. Laurogeita hamar gradu biratu dute ezkerredera eta orain ia zezen-plaza begi aurrean dute.

Bozgorailuetatik esaten ari dira:

- Kontuz, kontuz, zezenek alde egin dute! Ahal duenak ihes egin dezala edo babesten saiatu!

Sei zezenak Maikelen atzetik doaz eta udaltzainek entzierroko ibilbidea zehazten duen pinu-zurezko oholen zati bat ireki dute. Maikelek tarte hori aprobetxatuz, zezen-plazara sartzeko dagoen egurrezko ate gorria gaintu du eta zezenak ere bere atzetik joan dira, elkar borrokatuz, nor lehenengo sartu. Zezen-plaza biribileko erdigunean korrikalaririk ez dago, aldiz, harmailetan, milaka pertsona txaloka. Maikelen balentria bertan jarritako pantaila erraldoitik jarraitu dute eta txalo zaparrada luzea jaso du.

Geroztik berririk ez daukat nik...